



**2018KO AZAROAREN 30EAN
UDALBATZAK EGINDAKO EZ OHIKO
BILKURAREN AKTA.**

Ozaetan, Barrundiako udaletxeko bilkura aretoan, 2018ko azaroaren 30ean, 13:15ak direnean, ondoren aipatzen direnak bildu dira lehenengo deialdian, Afro Olabe Martínez de Albeniz Alkate jaunaren lehendakartzapean eta Jon Txopitea Zugadi Idazkari Kontuhartzailearen laguntzarekin.

BERTARATUTAKO KIDEAK

Lehendakaria: Afro Olabe Martínez de Albeniz jauna.

Ainara Saez de Ocariz Albizu andrea.

Jose Antonio Suso Perez de Arenaza jauna.

Jone Berriozabal Boveda andrea.

Joseba Diez Antxustegi jauna.

Idazkaria: Jon Txopitea Zugadi.

Quorum nahikoa dagoela egiaztatu ondoren, Lehendakari jaunak hasiera eman dio bilkurari eta Aztergaien Zerrendan agertzen diren gaiak jorratzeari ekin zaio:

**1.- 2018KO URRIAREN 30EKO AKTA
ONARTZEA.**

Osoko Bilkurak 2018ko urriaren 30ean egindako batzarraren aktaren zirriborroa aurkezten da.

Udalbatzak akta aho batez onartzen du.

**2.- "VENTA DEL PATIO" N
(MENDIXUR) LURSAILAK ETA**

**ACTA DE LA SESIÓN
EXTRAORDINARIA CELEBRADA
POR EL AYUNTAMIENTO-PLENO
EL 30 DE NOVIEMBRE DE 2018.**

En Ozaeta, en el Salón de Plenos del Ayuntamiento de Barrundia, siendo las 13:15 horas del día 30 de noviembre de 2018 se reúnen, en primera convocatoria, los miembros que a continuación se indican bajo la Presidencia del Sr. Alcalde, D. Afro Olabe Martínez de Albéniz, y asistidos del Secretario-Interventor municipal, D. Jon Txopitea Zugadi.

MIEMBROS ASISTENTES

Presidente: D. Afro Olabe Martínez de Albéniz.

D^a. Ainara Saez de Ocariz Albizu.

D. José Antonio Suso Perez de Arenaza.

D^a. Jone Berriozabal Boveda.

D. Joseba Diez Antxustegi.

Secretario: Jon Txopitea Zugadi.

Comprobada la existencia de quórum suficiente al efecto el Sr. Presidente declara abierta la sesión, procediéndose al análisis de cada uno de los puntos que integran el Orden del Día:

**1.- APROBACIÓN DEL ACTA DE 30
DE OCTUBRE DE 2018.**

Se presenta el borrador del acta de la sesión celebrada por el Ayuntamiento-Pleno el 30 de octubre de 2018.

El Ayuntamiento-Pleno, por unanimidad, acuerda aprobar el acta.

2.- PROYECTO DE ADQUISICION



**HIGIEZINAK
EGITASMOA.**

IKUSIRIK: Barrundiako Udalak honako hauek eskuratu behar dituela:

Katastro - erreferentzia A:

Hiri - azpilursaila

1 eraikina: Landa-etxebizitza:
130203530B00010001JP

Korta eta lastategiak:
130203530B00010002LP

Trastelekua: 130203530B00010003AP

2 eraikina: Biltegia:
130203530B00020001JR

3 eraikina: Oilategia:
130203530B00030001JT

Katastro-erreferentzia B:

Landa-azpilursaila

A: 130203530A00000000HU

C: 130203530C00000000HT

Kokalekua: Venta del Patio (Mendixur).

Mota: Lur ez urbanizagarria.

A gainazala: 982 metro karratu.

B gainazala: 667 metro karratu.

KONTUAN HARTUZ: Proposaturiko lursail eta eraikinak eskuratuta, Barrundiak zerbitzu garrantzitsuak eskaintzeko gune bat eduki ahal izango du, udal-zerbitzuak, kontzeju-mailakoak eta eskualdekoak emateko, alegia.

Kokaleku estrategikoak barrundiarron bizi-kalitatea hobetzeko tresna gisa irudikatzea ahalbidetzen du, baina, toki horretan izaten den mugimendu handia dela eta, baita jarduera eta lanerako palanka gisa ere, Barrundiak eta

**DE PARCELAS E INMUEBLES EN
"VENTA DEL PATIO" (MENDIXUR).**

VISTO: Que el Ayuntamiento de Barrundia necesita adquirir lo siguiente:

Referencia catastral A:

Subparcela urbana

Edificio 1: Vivienda rural:
130203530B00010001JP

Cuadras y pajares:
130203530B00010002LP

Trastero: 130203530B00010003AP

Edificio 2: Almacén:
130203530B00020001JR

Edificio 3: Gallinero:
130203530B00030001JT

Referencia catastral B:

Subparcela rústica

A: 130203530A00000000HU

C: 130203530C00000000HT

Localización: Venta del Patio (Mendixur).

Clase: Suelo no urbanizable.

Superficie A: 982 metros cuadrados.

Superficie B: 667 metros cuadrados.

CONSIDERANDO: Que la adquisición de las parcelas y edificios propuestos es una oportunidad que se presenta para que Barrundia pueda disponer de un espacio capaz de ofrecer importantes servicios a nivel municipal, concejal y comarcal.

Su estratégico emplazamiento permite plantearse un espacio que se constituya en herramienta para mejorar la calidad de vida de la población barrundiarra, pero al mismo tiempo se convierta en palanca para la actividad y el empleo,



Lautadak eskaintzen dituzten aukerak ezagutarazteko, turismorako eta bertako produktuen salmentarako.

2 eraikina berehala erabili ahal izango da udal-biltegi gisa.

Inguruko mugimendua tokiko produktuak saltzeko abantaila izan daitezkeenez, 3 eraikina (kanpotik irisgarria, 497. lursailetik) eraldatu eta postuak baterian jar litezke, tokiko ekoizpen hori bezeroaren eskura jartzeko eta salmenta-zirkuitu motzak bultzatzeko.

Eskualdean eskatzen ari den beste zerbitzu bat da oinarrizko produktuak eraldatzeko eremuak prestatzea. 2 eraikineko espazioaren zati bat horretara bidera liteke, eskaera baieztatuko balitz.

Udala Ozaetako eraikinetan eskaintzen ari den hainbat zerbitzu soziokulturaletan gero eta jende gehiagok hartzen du parte; udalerriko hegoaldeko biztanleguneetarako beste esparru bat izan liteke espazio hori.

Barneko lorategiko eremua, 600,00 metro karratu eta zuhaitz ederrak dituen, honetarako erabil liteke:

aprovechando el intenso tránsito que se da en ese punto para dar a conocer las posibilidades que ofrecen Barrundia y la Lautada, generando oportunidades para el turismo y la comercialización de los productos locales.

El edificio nº2 ofrecerá con carácter inmediato la posibilidad de ser destinado al servicio de almacén municipal.

Dado que el tránsito de la zona puede ser una ventaja para la venta de productos locales, el edificio nº3 (accesible desde el exterior por la parcela 497) puede ser transformado en breve plazo en una serie de puestos en batería que permitan acercar esa producción local a un importante número de demandantes, contribuyendo al fomento de los circuitos cortos de comercialización.

Otro servicio que se está demandando a nivel comarcal es la habilitación de espacios para la transformación de los productos primarios. Parte del espacio del edificio nº2 pudiera ser habilitado para esas funciones si la demanda se confirma.

Determinados servicios socio-culturales que el Ayuntamiento viene ofreciendo en sus edificios de Ozaeta, están llegando a un elevado nivel de ocupación; proveer un espacio alternativo para las localidades del sur del municipio puede ser una función a desarrollar en ese espacio.

El espacio que ofrece el jardín interior, con sus 600,00 metros cuadrados, y una vegetación arbórea de buen porte puede habilitarse para:



.- bertako herritarrentzako kale-jarduerak egiteko.

.- ondoko eraikinetan ekoitzitako tokiko produktuak dastatzeko.

.- Barrundiara eta Lautadara bisitan datozenentzako aurkezpen-gunea, Eskualdeko aukeren berri jaso dezaten.

Alkate-Presidenteak aztertu beharreko proiektuaren garrantzia azpimarratu du, hiru argudiotan oinarrituta. Lehenik eta behin, egitasmoa gauzatzeak egoera onean dagoen pabiloi handi bat berehala izatea ekarriko luke, eta udal-material guztia bertan biltegitara liteke. Izan ere, material hori guztia, egun, toki-jabetzako zenbait lekutan gordeta dago, desegoki, gainera. Bigarrenik, gizarte-eta kultura-jarduerak segurtasunez eta eraginkortasunez antola litezke bertan. Halaber, bertoko nahiz Lautada osoko ekoizleen ekonomia-garapenerako gunea sortuko litzateke, ekoizleek beren produktuak merkatura ditzaten. Hirugarrenik, orain Ozaetako erdigunean pilatuta dauden hainbat zerbitzu sakabana litezke, udalerriko hegoaldea garatzeko: Mendixur, Maturana, Gebara, Etxabarri Urtupiña, Etura, Dallo, Audikana eta Heredia. Herri horiek guztiek halaxe egiteko eskatu izan dute behin eta berriz.

.- actividades de calle para la población local.

.- espacio de degustación para los productos locales comercializados en los edificios colindantes.

.- un espacio de presentación para los visitantes de Barrundia y de la Lautada, desde el que dar a conocer a quienes pasan por allá las posibilidades de la Comarca.

Toma la palabra el Alcalde-Presidente para manifestar la importancia del proyecto a análisis en tres facetas, así, por un lado, la materialización última del proyecto conllevaría la tenencia inmediata de un gran pabellón en condiciones óptimas para almacenaje de todo el material municipal, que actualmente se encuentra depositado en diversos espacios de titularidad local de una manera no óptima y podría servir para realizar actividades sociales y culturales de manera segura y eficaz, por otro, se crearía un espacio de desarrollo económico de productores locales y del conjunto de la Lautada que pudieran comercializar sus productos, y, para finalizar, se podrían desconcentrar una serie de servicios, actualmente colmatados en el núcleo de Ozaeta, para desarrollar la zona sur del término municipal, léase, Mendixur, Maturana, Gebara, Etxabarri-Urtupiña, Etura, Dallo, Audikana y Heredia, siendo ésta una petición reiterada de dichas localidades.


Jarraian, Suso zinegotzi jaunak (EAJ) bere talde politikoaren iritzia agertu du: bat dator, erabat, Barrundiako eta Lautadako lehen sektorea garatzeko asmoarekin, horregatik proiektua

Acto seguido, toma la palabra el edil Suso (PNV) para manifestar el parecer de su grupo político, así, se declara absolutamente partidario de desarrollar el sector primario de



deskribatu bezala gauzatzearen alde dago. Haatik, taldeak egitasmoaren kontrako botoa emango du, bi arrazoiengatik: alde batetik, eskuratu beharreko elementuen kokapena estrategikoa bada ere, inguruko bidesare garrantzitsuek kalte egiten diete. Bestetik, ez da bideragarritasun-programarik aurkeztu, eta, hortaz, ez dago aurreikusita egin beharreko eraisketen eta berreraikuntzen -azokako postuak jartzeko eraikina eta abar-kostua.

Barrundia y de la Lautada, por tanto, ve con buenos ojos la idea de desarrollar el proyecto en los términos descritos, pero le albergan una serie de dudas, así, la posición de los elementos a adquirir es estratégico pero, a su vez, sufren el menoscabo de las importantes redes viarias a la que están afectas, además, no se ha presentado un programa de viabilidad que responda a una serie de cuestiones trascendentales como coste de los derribos a desarrollar y reconstrucción de los elementos necesarios, esto es, el edificio que habría de albergar los puestos de comercialización, etc..., por todo ello, su grupo votará en contra del proyecto.



Alkate-Presidenteak azpimarratu du, arestian azaldutako guztiaz gain, lekuak kokapen estrategikoa duela, eta inguruko errepide guztietatik ikusten dela: N-1etik, N-104tik eta A-3012tik. Errepide horiek Barrundia eta Lautada osorako sarbideak dira, eta autoen joan-etorria handia da. Gaineratu du pabiloi handia bere horretan utzi behar dela; gainerakoak, aldiz, eraitsi egin behar dira, proiektuaren funtsezko elementuak hartuko dituzten instalazioak eratzeko. Bukatzeko, nabarmendu du proiektuak Arabako Foru Aldundiaren bermea duela; izan ere, diruz lagundu du Obren eta Zerbitzuen 2018-2019 Foru Planaren baitan.

En la réplica, el Alcalde-Presidente señala que además de todo lo anterior, hay que subrayar la absoluta posición estratégica de la ubicación, visible desde todas las carreteras que lo circundan, donde el trasiego de vehículos es muy importante, así, N-1, N-104 y A-3012, puerta de entrada a toda la Barrundia y a la Lautada; añade que evidentemente el elemento a mantener es el gran pabellón y que los demás elementos hay que derribarlos para la creación de unas instalaciones que alberguen los elementos clave del proyecto, para finalizar, subraya que dicho proyecto en su conjunto cuenta con el aval de la Diputación Foral de Araba que lo ha subvencionado dentro del Plan Foral de Obras y Servicios 2018-2019.

Suso zinegotzi jaunak (EAJ) adierazi du eskurapenaren kostua handia dela, ondoren Udalak zenbait eraikin eraitsi beharko dituelako.

Retoma la palabra el edil Suso (PNV) para remarcar que el coste de la adquisición le parece elevado toda vez que después el Ayuntamiento se verá obligado a derribar diversos



Alkate-Presidenteak erantzun du ez dela horrela izango, INFORLUR S.L. ingeniaritza-enpresak 112.131,30 euroan zenbatetsi baitu. Kopuru horretatik, 99.297 euro nekazaritza-pabiloiari legozkio, eta zoru hutsak, eraikinik gabeak, 12.834,30 euroko zenbatespena izango luke. Hori guztia dela eta, eragiketaren kostua, finantza-ikuspegitik aztertuta, txiki-txikia da.

Aipatu guztia azalduta, eta Osoko Bilkuraren osaera ikusirik -EH Bilduko zinegotziak ez daude-, aho batez adostu da gaia mahai gainean uztea.

3.- UDALEKO 2018-2022 ESEP PLANA.

IKUSIRIK: Udalbatzak, 2018ko ekainaren 27an egindako batzarrean, Barrundiako Udalaren Euskara sustatzeko ekintza plana, 2018ko urtarrilaren 1etik 2018ko abenduaren 31ra arteko iraupena duena, onartu zuen.

GERTUA IZANIK: Lautadako Kuadrillako euskara teknikariak 2018-2022 ekitaldietan garatu beharreko Egitasmo estrategiko horren ardatz nagusiak zehazten ditu, horrela:

- .- Gazteen arteko erabilera.
- .- Kirol eta aisialdi eskaintzaren euskalduntzea.
- .- Helduen aktibazioa.
- .- Familia transmisioa.
- .- Euskalduntzea: oinarritzko ulermena –

inmuebles.

El Alcalde-Presidente, en su intervención, manifiesta que nada mas lejos de la realidad, ya que la valoración definida por la ingeniería INFORLUR S.L. asciende a 112.131,30 euros, de los que el pabellón agrícola se llevaría 99.297 euros y el suelo vacuo, sin edificaciones, se valoraría en 12.834,30 euros, por tanto, el coste de la operación desde el punto de vista financiero es ridículo.

Expuesto lo anterior, y vista la composición del Pleno por la falta de los correspondientes ediles de la formación EH BILDU, se acuerda, por unanimidad, dejar el tema sobre la Mesa para su estudio en la próxima sesión plenaria.

3.- PLAN ESEP DEL AYUNTAMIENTO 2018-2022.

VISTO: Que el Ayuntamiento-Pleno, en sesión celebrada en fecha 27 de junio de 2018, aprobó el Plan de actuación para la promoción del euskara del Ayuntamiento de Barrundia para el periodo de vigencia del 1 de enero de 2018 hasta el 31 de diciembre de 2018.

RESULTANDO: Que el Técnico de euskara de la Cuadrilla de Lautada presenta el desarrollo de dicho Plan estratégico invocando las líneas fundamentales a desarrollar en los ejercicios 2018-2022, así:

- .- Uso entre la juventud.
- .- Euskaldunización de la oferta cultural y de tiempo libre.
- .- Activación de adultos euskaldunes.
- .- Transmisión familiar.
- .- Trabajar en la euskaldunización, la



Gaitasun pasiboa.

KONTUAN HARTUZ: Euskal Autonomia Elkarteko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen 86/1997 Dekretuaren 1. artikulua 2. atalaren xedatzen duen arabera, Euskal Autonomia Elkartean dauden herri-administrazioekin euskaraz jarduteko eskubide osoa du herritarrak eta, beraz, eskubide hori bete dadin, herri-aginteez, nork bere esparruan, euskara zerbitzu zein lan-hizkuntz modura normaltasunez erabiltzeko hartu beharreko erabaki guztiak hartuko dituzte.

KONTUAN HARTUZ: Aurrenean zehaztutako Dekretuaren 4. artikulua arabera, Euskal herri-administrazioetako hizkuntz normalkuntza-prozesua hezuramitu dadin, entitate bakoitzak euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu eta gauzatu beharko du.

KONTUAN HARTUZ: 86/1997 Dekretuaren 19. artikulua arabera, Euskal herri-administrazioek euskararen erabileraren normalkuntzarako planak onartuko dituzte plangintzaldi bakoitzaren lehenengo urtean, eta horrelakorik onartuta duten kasuetan, hauei egin beharreko egokitzapenak, planaren inplementaziorako egoki derizkioten aldaketak lanpostu-zerrendan jasoko direlarik.

Berriozabal zinegotzi andreak (EAJ) adierazi du jasotako dokumentazioa

comprensión básica de la lengua.

CONSIDERANDO: Que de conformidad con el apartado 2 del art. 1 del Decreto 86/1997, por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskara en las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco, con objeto de garantizar el derecho de los ciudadanos a relacionarse en euskera con las Administraciones Públicas radicadas en la Comunidad Autónoma de Euskadi, los poderes públicos adoptarán las medidas oportunas para la normalización del uso del euskera, ya como lengua de servicio ya como lengua de trabajo, en los diferentes ámbitos de su competencia.

CONSIDERANDO: Que de conformidad con el art. 4 del Decreto anteriormente referenciado, el proceso de normalización lingüística en las Administraciones Públicas Vascas se llevará a cabo a través de la aprobación y ejecución de los Planes de Normalización del uso del euskara de cada entidad.

CONSIDERANDO: Que de conformidad con el art. 19 del Decreto 86/1997, las Administraciones públicas vascas aprobarán el primer año de cada periodo de planificación sus correspondientes planes de normalización del uso del euskera o las oportunas modificaciones de los mismos, cuando ya contaran con ellos, con las modificaciones en la relación de puestos de trabajo que, en su caso, estimen procedente plantear para su implementación.

Toma la palabra la edil Berriozabal (PNV) para manifestar que analizada



aztertu duela, eta hutsune garrantzitsuak aurkitu dituela. Plana orokorregia da; izan ere, jarduketaz guztiek edozein udalerritan gauza litezkeen kontuak garatzen dituzte. Horrez gain, ez du aurreko Planaren ebaluaziorik topatu, eta funtsekoa iruditzen zaio etorkizunari begira zer egin daitekeen jakiteko. Hortaz, bere talde politikoa gaia aztertzeke uztearen aldekoa da, Lautadako Kuadrillako hizkuntza-normalizaziorako teknikariak aipatu balorazioa aurkeztu arte.

Alkate-Presidenteak nabarmendu du Barrundia udalerrian aurkeztutako Plana Lautadako Kuadrillan aho batez onartutako Plan bera dela. Edonola ere, aurreko plangintza-aldiko emaitzak ebaluatzeko eskatuko zaio hizkuntza-normalizaziorako teknikariari.

Horrenbestez, Osoko Bilkurak aho batez adostu du gaia mahai gainean uztea, hurrengo Osoko Bilkuran azter dadin.

4.- "BERE HISTORIA AHAZTEN DUEN HERRIA IDENTITATERIK GABEKO HERRIA DA". EH BILDU MOZIOA.

IKUSIRIK: EH BILDU talde politikoak, 2018ko azaroaren 16an (1845 sarrera-erregistroa), bere eztabaida eta bozketarako, honako mozio hau aurkeztu du, hitzez hitz honako hau dioena:

"1947 eta 1957 urte artean, Ullibarri Ganboako urtegia eraiki zen. Eraikuntza honek paisaia aldatzeaz gain, jende askoren bizitza aldatu zuen, urtegia eraikitzeko desagertu zen Ganboa udalerriko bizilagunena hain zuzen ere.

la documentación remitida encuentra serias deficiencias en tanto en cuanto el Plan es muy generalista, todas las líneas de actuación desarrollan aspectos que podrían ser materializados en cualquier municipio, además, no ha encontrado la evaluación del Plan anterior, lo cual es fundamental para ver las posibilidades de acción a futuro, por tanto, la posición de su grupo político es que el tema quede sobre la Mesa para su estudio una vez presentado por parte del técnico de normalización lingüística de la Cuadrilla de Lautada el estudio antecitado.

Toma la palabra el Alcalde-Presidente para subrayar que el Plan presentado en el municipio de Barrundia es el mismo aprobado por unanimidad en la Cuadrilla de Lautada, a pesar de ello, se requerirá al Técnico de normalización lingüística para que evalúe los resultados del anterior periodo de planificación.

Visto lo anterior, el Ayuntamiento-Pleno, por unanimidad, acuerda dejar el tema sobre la Mesa para su estudio en la próxima sesión plenaria.

4.- "UN PUEBLO QUE OLVIDA SU HISTORIA ES UN PUEBLO SIN IDENTIDAD". MOCION. EH BILDU.

VISTO: Que la formación política EH BILDU, en fecha 16 de noviembre de 2018 (registro de entrada nº 1845), presenta, para su debate y votación, la siguiente moción, que, textualmente, dice:

"Entre los años 1947 y 1957 se construyó el embalse de Ullibarri-Ganboa. Esa obra cambió el paisaje pero sobre todo cambió la vida de mucha gente, la de las personas que habitaban el municipio de Ganboa que desapareció.



Udalerrri hau Azua, Garaio, Larrintzar, Marieta, Mendixur, Mendizabal, Langara Ganboa, Orenin eta Zuhatzu Ganboa herriek osatzen zuten. Udalerrriak 41,14 km² ko azalera zuen eta 1940. urtean 630 biztanle zituen.

Zadorrako urtegiaren eraikuntzak, 1957ko maiatzaren 10ean Ganboa udalerrriaren disoluzioa ekarri zuen, baita inguruko herrien zatiketa ere. Banaketa honela egin zen: Garaio, Larrintzar, Marieta, Mendixur eta Zuhatzu Ganboako biztanleak Barrundia udalerrira joan ziren. Langara Ganboa eta Mendizabal Arrazua-Ubarrundiak hartu zituen eta azkenik, Azua eta Orenin Elburgok.

Behin urtegia bete zelarik, herri gehienak mota ezberdinetako arazoak izan zituzten uholdeagatik.

Mendizabal eta Orenin, adibidez, guztiz urperatuta geratu ziren behin betiko desagertuz.

Garaion ere sekulako eragina izan zuen etxeren batek edo bestek zutik iraun bazuen ere, baino honek herria ia-ia jendez hustea ekarri zuen. Egun, Garaio bainurako eta aisialdirako zonalde bezala ezagutzen dugu.

Zuhatzu Ganboa berriz uholdetik salbatu bazen ere, urtegiaren erdian irla bihurtu zen eta ondorioz ere jendez hustu zen. Egun Zuatxako irla bezala ezagutzen dugun eta Arabako Foru Aldundiak haur eta nerabeentzako udalekuetarako erabiltzen duen lekua da.

Azua eta Langara Ganboa lakuaren urertzean geratu ziren. Baina bertako bizilagunek laborantzarako lur asko galdu zituzten eta beren burua emigratzera behartuta ikusi zuten. Azua hutsik geratu zen eta Langara, egoera berdineran heldu gabe baina biztanleen kopuru garrantzitsua galdu zuen ondorioz kontzeju izaera galtzeraino.

Poliki-poliki eta modu ofizialean antzinako Ganboako kontzejuak ere desagertuz joan ziren: Zuhatzu Ganboa (15-1-1959), Mendizabal (2-3-1959), Azua eta Orenin (2-4-1959), Langara Ganboa (31-5-1961) eta azkenik Garaio (15-6-1961). Urtegiaren uraren gorakadaren ondorio txikiak pairatu zituzten herriak Marieta, zeina ondoko Larrinzarrekin batera kontzeju bakarra osatu zuten, eta Mendixur izan ziren. Egun bi herri hauek bizirik jarraitzen dute kontzeju bezala urtegiaren eraikuntzarekin

Este municipio estaba formado por los pueblos de Azua, Garaio, Larrínzar, Marieta, Mendixur, Mendizabal, Nanclares de Ganboa, Orenin y Zuazo de Ganboa. Su término municipal se extendía por 41,14 km². En el año 1940 contaba con más de 630 vecinas y vecinos.

La construcción del embalse del Zadorra hizo que el 10 de mayo de 1957 se decretara la disolución del municipio de Ganboa y su división entre los municipios vecinos. El reparto se hizo de la siguiente manera: Garaio, Larrínzar, Marieta, Mendixur y Zuazo de Ganboa fueron al municipio de Barrundia. Nanclares de Ganboa y Mendizabal fueron absorbidos por Arrazua-Ubarrundia y finalmente Azua y Orenin por Elburgo.

Una vez que se procedió al llenado del embalse la mayor parte de los pueblos se vieron afectados de diferente manera por la inundación.

Mendizabal y Orenin, por ejemplo, quedaron completamente sepultados bajo las aguas desapareciendo para siempre.

Garaio se vio afectado también casi totalmente por la inundación, aunque se salvara alguna casa. Ello hizo que el pueblo quedara prácticamente despoblado. Actualmente Garaio es conocido como zona de baño y esparcimiento.

Zuazo de Ganboa se salvó de la inundación, pero quedó convertido en una isla en mitad del pantano, por lo que acabó también despoblado. Actualmente es conocido como la Isla de Zuaza, utilizado como campamento de colonias juveniles por la Diputación de Araba.


Azua y Nanclares de Ganboa quedaron a orillas del lago. Sin embargo sus habitantes perdieron muchas tierras de cultivo y se vieron obligados a emigrar. Azua quedó deshabitada y Nanclares, sin llegar al mismo extremo, sí vio reducida su población en gran número e incluso perdió la condición de concejo.

Progresivamente los antiguos concejos de Gamboa fueron también extinguiéndose de forma oficial: Zuazo de Ganboa (15-1-1959), Mendizabal (2-3-1959), Azua y Orenin (2-4-1959), Nanclares de Ganboa (31-5-1961) y finalmente Garaio (15-6-1961). Las poblaciones que menos sufrieron por la recrecida del embalse fueron Marieta, que se fusionaría con la vecina Larrínzar en un único concejo y Mendixur. Estas dos poblaciones siguen



kultiborako lursailak galdu bazituzten ere.

Baina ezin dugu inolaz ere ahantzi zein testuinguruan garatu zen obra hura. Fránkismoa garaian. Zaila da tamaina honetako obra bat topatzea, non aurrean neurri batean edo bestean ez dien bertako biztanleei eragiten. Pertsonen eskubideen gainean eraikitzen diren interes orokorreko azpiegiturak dira. Hau da, bertako herritarren eguneroko bizitza eraldatu zen, gauzatu ziren etxebizitza eta lursailen desjabetze prozesuen ondorioz. Azpiegitura hau zein testuingurutan burutu zen ikusita, badakigu prozedura horiek ez zirela behar besteko bermeekin eman. Egora hura bizi izan zuten pertsonen testigantzek hala erakusten digute. Presioak, desterruak, mehatxuak, indemnizazio eskasak...



Udalerriko bizilagun gehienek Gasteizera jo zuten. Beraien etxeak, lursailak, bizimodua eta baliabideak atzean utziz. Urpean itota geratu ziren oroitzapenak. Berriro ere hutsetik hasi behar izan zuten, ofizio berriak ikasiz... pertsona horiengan guztiengan sekulako arrastoa geratu zen. Herriak urpean desagertu baziren ere, memoria ezin da ito, bere historia ahazten duen herria identitaterik gabeko herria bilakatzen da. Zilegia da egoera hori bizitzera kondenatu zituztenen memoria ez desagerraraztea. Urtegiaren eraikuntzaren ondorioz kaltetutako herri eta bizilagunen memoria galdu ez dadin Barrundiako EH BILDUK ondorengo mozioa aurkezten du osoko Bilkuran eztabaidatu eta onartu dadin:

1.- Barrundiako udalbatzak, Arabako foru Aldundiarekin batera eta herri hauetako biztanleak hartu zituzten udalerriekin elkarlanean, (Gasteiz, Arrazua-Ubarrundia eta Elburgo), Garaio eta Landako parkeetan argibide-panelak jartzea adosten du, erabat edota partzialki urperatuta geratu ziren herriak oroitzuz.

existiendo como concejos en la actualidad, aunque también se vieron afectados por la construcción del embalse, ya que también perdieron tierras de cultivo.

Pero no podemos obviar el contexto en el que se produjo esta obra. En plena era franquista. Es difícil encontrar obras de esta envergadura que no hayan afectado a sus habitantes en mayor o menor medida. Obras con un objetivo de interés general que queda por encima de los derechos de unos cientos de personas. Procesos de expropiación de sus casas y, como en este caso, de las tierras de cultivo, es decir, de sus hogares y de su medio de subsistencia. Y el contexto en el que se produjo este proceso evidentemente no contó con muchas de las garantías que están previstas para este tipo de procedimientos. Los testimonios de las personas que lo vivieron dan cuenta de ello. Presiones, destierros, amenazas, indemnizaciones limitadas, etc. Testimonios que son el motor de la memoria y son la base de esta iniciativa. Personas que sufrieron y que hoy día lo reviven con gran intensidad a pesar de los años transcurridos.

La mayoría de las y los vecinos del municipio fueron a Gasteiz. Dejando atrás sus casas, sus tierras, su modo de vida, y sus recuerdos. Recuerdos que quedaron anegados por las aguas. Empezar de cero, aprender nuevos oficios, hechos que han dejado una profunda huella en todas esas personas. Los pueblos desaparecieron bajo el agua, pero no su memoria. Y un pueblo que olvida su historia es un pueblo sin identidad. Es de justicia que esa memoria no desaparezca con aquellos y aquellas que lo vivieron. Que los municipios colindantes y Gasteiz no dejen en el olvido a estos pueblos desaparecidos por la construcción del embalse, en un acto de reconocimiento a sus pobladores.

Por todo ello,

1. El pleno del Ayuntamiento de Barrundia en colaboración con la Diputación Foral de Álava y con los municipios que absorbieron estos pueblos (Gasteiz, Arrazua-Ubarrundia y Elburgo), impulsen la colocación de sendos paneles gráficos explicativos en el lugar que se considere más apropiado de los Parques provinciales de Garaio y Landa, representando la ubicación de los pueblos que quedaron total



2.- Barrundiako udalak, Arabako Foru Aldundiarekin elkarlanean, ekitaldi instituzional bat egitea adosten du, esfortzu komunikatibo berezia eginez bere garaian herriotan bizi ziren biztanleengana eta euren ondorengoengana heltzeko. Ekitaldi bat, non herriotako biztanleek pairatu zituzten ondorio negatiboak errekonozituko diren, are gehiago frankismo garaiak larriagotu zituela kontuan izanda, eta era berean bizi izandakoa erreparatzeko balio dezan.

3.- Barrundiako udalak, Arabako Foru Aldundia, Gasteizko udala, Burgeluko udala eta Arrazua-Ubarrundia udalarekin batera, espazio bakar bat aukeratzea adosten du, zeinetan aipatutako 9 herrien memoria jasoko duen elementu artistiko bat ezarriko den.

4.- Barrundiako Udalak Arabako Foru Aldundiari eskatzen dio hilabete bateko epean aipatutako udalekin osatutako lan talde bat deitu dezan ekimen hau aurrera eraman ahal izateko.

5.- Mozio honen ebazpena Arabako Foru Aldundiari, Gasteizko udalari, Burgeluko udalari eta Arrazua-Ubarrundiako udalari bidaliko zaie".

Horrenbestez, Osoko Bilkurak, aho batez, hau adostu du:

LEHENA.- Onartzea arestian transkribatutako mozioa, Uribarri Ganboako urtegiaren eraikuntza-prozesuari eta biztanleengan nahiz inguruko herrietan izandako eraginei buruzkoa.

BIGARRENA.- Ebazpen honen berri ematea Arabako Foru Aldundiari eta Burgeluko, Arratzua-Ubarrundiako eta Gasteizko Udalei.

Alkate-Presidenteak nabarmendu du Uribarri Ganboako urtegiaren

o parcialmente bajo el agua.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Barrundia igualmente impulse con las instituciones citadas a realizar un acto institucional, haciendo un esfuerzo comunicativo para invitar a las y los antiguos pobladores de estos nueve pueblos y a sus descendientes. Acto en el que haya un reconocimiento de las consecuencias negativas que padecieron, agudizadas por el proceder del régimen franquista y sirva de reparación a lo que padecieron.

3. El Pleno del Ayuntamiento de Barrundia busque en colaboración con el resto de ayuntamientos un lugar apropiado para la colocación de un único elemento artístico que recuerde estos nueve pueblos con su panel explicativo.

4. El Ayuntamiento de Barrundia insta a la Diputación Foral de Alava, a que en el plazo de un mes convoque un grupo de trabajo formado por representantes de los ayuntamientos implicados con el fin de poder llevar a cabo esta iniciativa.

5. El Pleno del Ayuntamiento de Barrundia acuerda enviar la resolución de esta moción a la Diputación Foral de Alava, al Ayuntamiento de Gasteiz, al Ayuntamiento de Arrazua-Ubarrundia y al Ayuntamiento de Burgelu".

Expuesto lo anterior, el Ayuntamiento-Pleno, por unanimidad, acuerda:

PRIMERO.- Aprobar la moción arriba transcrita, relativa al proceso de construcción del embalse de Ulibarri-Ganboa y sus repercusiones en la población y en los pueblos adyacentes.


SEGUNDO.- Notificar la presente resolución a la Diputación Foral de Araba y los Ayuntamientos de Burgelu, Arratzua-Ubarrundia y Gasteiz.

El Alcalde-Presidente subraya la necesidad de actualizar la Memoria



eraikuntzaren gaineko Memoria Historikoa eguneratu egin behar dela. Izan ere, aipatu instalazioak sufrimendua eragin zuen bertako herrietan: ia gehienak desagertu edo mugako udalerrien parte bihurtu ziren. Ondorioz, Gasteizerako, hiriburu handirako, emigrazio-prozesua abiatu zuen, eta horrek guztiak ageriko arrastoa utzi zien bertako herritarrei. Bukatzeko, azpimarratu du herri horien Memoria Arabako Foru Aldundiarekin eta Burgeluko, Arratzua-Ubarrundiako eta Gasteizko Udalekin elkarlanean iraunarazi behar dela.

Histórica referente a la construcción del embalse de Ulibarri-Ganboa; a partir de dicho hecho, el sufrimiento de todos los pueblos en que se asienta dicha instalación conlleva la desaparición de casi todos y su absorción en ciertos casos por los municipios limítrofes, esto da lugar a un proceso migratorio hacia la gran capital Gasteiz que deja una huella evidente en los/as ciudadanos/as de dichos enclaves. Para finalizar remarca la necesidad de perpetuar la Memoria de dichos pueblos en coordinación con la Diputación Foral de Araba y los Ayuntamientos de Burgelu, Arratzua-Ubarrundia y Gasteiz.



Jarraian, Suso zinegotzi jaunak (EAJ) bat egin du, erabat, aurkeztutako mozioarekin, eta beharrezkoa iritzi dio desagertu ziren herriek zein bertako biztanleek jasandako egoera aldarrikatzeari. Halaber, Foru Aldundiarekin eta mugako udalerriekin lankidetzan aritzea babestu du.

Acto seguido, toma la palabra el edil Suso (PNV) para manifestar su total conformidad con la moción presentada y la necesidad efectiva de reivindicar la situación en la que quedaron los pueblos que desaparecieron y las gentes que habitaban en ellos; entiende necesaria la colaboración con la Diputación Foral y los municipios limítrofes.



5.- ALKATETZAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA.

Alkate-Udalburuaren honako erabakien berri ematen da:

.- 415 / 472 zenbakiko Dekretuak.

Udalbatza jakitun da.

Aztertzeko gai gehiagorik ez dagoenez, 13.55ak direnean bilkurari amaiera eman diogu, eta nik, Idazkariak, horren fede ematen dut.

5.- DACIÓN DE CUENTAS DE DECRETOS DE ALCALDÍA.

Se da cuenta de las resoluciones de Alcaldía siguientes:

.- Decretos números 415 / 472.

El Ayuntamiento-Pleno se da por enterado.

Y no habiendo más asuntos que tratar se levanta la sesión a las 13.55 horas, de lo cual yo, como Secretario, doy fe.-

Ayuntamiento de BARRUNDIA
(ÁLAVA)



BARRUNDIAKO Udala
(ARABA)

Alkate-Udalburua/El Alcalde-Presidente

Idazkaria / El Secretario


Afre Olabe Mtnéz de Albeniz




Jon Txopitea Zugadi

